## SECCIÓN AMENA

# BRECHAN

Belarri moch bat Brechan
igande goizian,
ari zan berriketan
denbora luzian;
silla baten gañera
igo ta zan ari,
jendia pillan zegoan
begira berari;
orla esaten zuen
agerturik gazta:
*—Jaunak, au da, au, manchak*
*kendutzeko pasta,*
urtan bustita onek
ikutzen dubena,
da munduan sortu dan
gauzarik onena,
onek garbitutzen du
erropa berela,
zikiñena jartzen du
berriya bezela.—
Baserritar *pasano*
bat anchen zegonak,
aditurikan arrek
zizkiyon itz onak,
diyo:—¿Garbitutzeko
dala ori egiña?
¿ta zuk zertan daukazu
chamarra zikiña?

JOSÉ ARTOLA